## TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**2457**

**166/2009 FORU AGINDUA, martxoaren 26koa. Honen bidez, behin betiko onartzen da Laguardiako Birgaitze Integratuko Plan Bereziaren aldaketa espedientea, 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateei buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa. 2008ko maiatzaren 14an, Laguardiako Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen BIPBa aldatzeari, 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateei dagokienez, baita espedientea hilabete jendaurrean jartzea ere. Honela eman zen horren berri: 2008ko ekainaren 18ko ALHAOn (69. zenbakia) eta 2008ko ekainaren 17ko “El Correo” egunkarian argitaratuta, eta udaletxeko iragarki taulan jarriz.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Udalak, 2008ko abuztuaren 4ko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen, bai eta Arabako Foru Aldundira bidaltzea ere, eta hemen 2009ko otsailaren 8an sartu zen.

Hirugarrena. Eskatu beharreko txosten teknikoa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatu, halaxe xedatzen baitu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 97.3 artikuluan, eta 2009ko otsailaren 6an jaso da.

II.- OINARRIAK

Lehenengoa. Laguardiako Udalak sustatutako espedientearen xedea da Laguardiako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziak aplikatutako “babes morfologikoa” kentzea 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateetan, multzoan errazago biltzeko; horrela, hotel jarduera jarri ahal izango da.

Eraikuntza unitate biak daude aurri egoeran, eta hotel erabilerak Laguardiako plaza nagusitik hurbil dagoen zona biziberrituko luke.

Bigarrena. Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak aurkeztutako txostena oinarritzat hartuta betekizun hauek beteko dira:

- Eutsi egin behar zaio 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateen babes morfologikoari. Hala ere, bi lurzatiak bil daitezke, hirugarren sektorerako esku hartze orokorra egiteko.

-Eraikin berriak eutsi egin beharko dio fatxadaren egiturak duen zatikatzeari, baita eraikinaren bolumenari ere (ezin izango da bi lurzatietarako fatxada bakarra izan).

- Ezin izango da bi lurzatietarako hegal bakarra izan.

- Eutsi egin beharko zaio beheko solairuan dagoen banatzeko horma egiturari, baina ireki egin ahal izango da erabiltzeko.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Laguardiako BIPBaren aldaketa espedientea, 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateei buruzkoa, aldaketa hauek eginda:

- Eustea 14-02 eta 14-03 eraikuntza unitateen babes morfologikoari. Hala ere, bi lurzatiak bil daitezke, hirugarren sektorerako esku hartze orokorra egiteko.

- Eustea eraikin berriak fatxadaren egiturak duen zatikatzeari, baita eraikinaren bolumenari ere (ezin izango da bi lurzatietarako fatxada bakarra izan).

- Ez izatea bi lurzatietarako hegal bakarra.

- Eustea beheko solairuan dagoen banatzeko horma egiturari, baina ireki egin ahal izango da erabiltzeko.

Bigarrena. Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**2457**

**ORDEN FORAL 166/2009, de 26 de marzo, de aprobación definitiva del expediente de Modificación del Plan Especial de Rehabilitación Integrada de Laguardia, referente a las unidades edificatorias 14-02 y 14-03.**

I.- ANTECEDENTES

Primero. Con fecha de 14 de mayo de 2008, el Ayuntamiento de Laguardia acordó aprobar inicialmente la modificación del PERHI referente a las unidades edificatorias 14-02 y 14-03, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante el anuncio en el BOTHA número 69, de 18 de junio de 2008, en el periódico El Correo, de 17 de junio de 2008, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo. Durante el periodo de información pública no se presentó ninguna alegación. En consecuencia, el Ayuntamiento procedió en sesión del día 4 de agosto de 2008 a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Alava donde tuvo entrada el día 8 de febrero de 2009.

Tercero. Solicitado el pertinente informe técnico al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, según lo establecido en el artículo 97.3 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, ha sido recibido en fecha 6 de febrero de 2009.

II.- FUNDAMENTOS

Primero. El objeto del presente expediente, promovido por el Ayuntamiento de Laguardia es la supresión de la “protección morfológica “ aplicada por el Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Laguardia a las unidades edificatorias 14-02 y 14-03, para facilitar su agrupación, posibilitando de este modo la ubicación de una actividad hotelera.

Ambas unidades edificatorias se encuentran en situación de ruina, por lo que la modificación y posterior uso hotelero revitalizaría la zona, cercana a la Plaza Mayor de Laguardia.

Segundo. En base al informe emitido por la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco:

- Se debe mantener la protección morfológica de las unidades edificatorias 14-02 y 14-03, posibilitándose no obstante la agrupación funcional de las dos parcelas para una intervención global destinada a uso terciario.

- La nueva edificación debe mantener el parcelario existente en la composición de fachada, así como el volumen de la edificación (no podrá ser una fachada unitaria para las dos parcelas).

- No se admitirá un alero unitario para las dos parcelas.

- Se debe mantener la estructura muraria de división existente en plata baja, posibilitando aperturas de uso en ella.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Aprobar definitivamente el expediente de modificación del PERHI de Laguardia, referente a las unidades edificatorias 14-02 y 14-03, con las modificaciones consistentes en:

- Mantener la protección morfológica de las unidades edificatorias 14-02 y 14-03, posibilitándose no obstante la agrupación funcional de las dos parcelas para una intervención global destinada a uso terciario.

- Mantener en la nueva edificación el parcelario existente en la composición de fachada, así como el volumen de la edificación (no podrá ser una fachada unitaria para las dos parcelas).

- No admitir un alero unitario para las dos parcelas.

- Mantener la estructura muraria de división existente en plata baja, posibilitando aperturas de uso en ella.

Segundo. Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación

foru aldundiari espedientea, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Foru agindu honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, egoki iritzi eta abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Aukeran, eta aipatutako errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoaren aurrean. Horretarako, hilabete izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 26a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**2444**

**183/2009 FORU AGINDUA, martxoaren 27koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, aldatu egiten da ekainaren 6ko 292/2006 Foru Agindua, zerga agenteen jardunak eta prozedurak onartzeari buruzkoa.**

Urtarrilaren 12ko 10/1992 Foru Aginduaren bidez, arautu egiten dira Ikuskatze Zerbitzuan behar bezala egiaztatutako eta txertatutako langile laguntzaileen, hau da, Ogasun Administrazioan zerga agente deritzenen, eginkizunak.

Gainera, ekainaren 6ko 292/2006 Foru Aginduak arautzen ditu zerga agenteek egin beharreko jardunak eta jarraitu beharreko prozedurak.

Nola Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean, hala Zerga Ikuskapenaren Arautegian, aldaketak egin direnez, ikuskatzeko prozedura eta jardunen artean egiaztapen mugatuarena dago.

Egiaztapen mugatuaren prozedura zerga ikuskapenak erabil dezakeenez, hain zuzen ere, zerga agenteek, bidezkoa da ekainaren 6ko 292/2006 Foru Aginduaren artikulu bakarra idaztea, betiere urtarrilaren 21eko 10/1992 Foru Aginduaren indarraldia errespetatuta.

Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak eta Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren gainean emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga agenteen jardunak eta prozedurak onartzen dituen ekainaren 6ko 292/2006 Foru Agindua aldatzea.

Zerga agenteen jardunak eta prozedurak onartzen dituen ekainaren 6ko 292/2006 Foru Aginduaren artikulu bakarra aldatzea, honela:

"Artikulu bakarra. Zerga agenteek egin beharreko jardunak eta prozedurak.

Beren eginkizunak garatzeko, zerga agenteek Ikuskatzailetza Arautegiaren 4. artikuluko b), d), f) eta g) idatz zatietan xedatutako jardunak eta prozedurak burutuko dituzte Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren barruan. Egiaztapen murriztuaren prozeduran, ez da zerga oinarrien eta zerga kuoten zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatuko.

Era berean, informazioa biltzen eta aztertzen laguntzeko lanak egingo dituzte Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 139. artikuluaren prozedurei dagokienez, bai eta Ogasun

Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero. Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente, y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 26 de marzo de 2009.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**2444**

**ORDEN FORAL 183/2009, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 27 de marzo, de modificación de la Orden Foral 292/2006, de 6 de junio, por la que se aprueban las actuaciones y procedimientos de los Agentes Tributarios.**

Mediante Orden Foral 10/1992, de 12 de enero, se regulan las funciones del personal de apoyo, debidamente acreditado e integrado en el Servicio de Inspección, que en el ámbito de la Administración de Hacienda son denominados Agentes Tributarios.

Asimismo, las actuaciones y procedimientos a seguir por los Agentes Tributarios se encuentran reguladas en la Orden Foral 292/2006, de 6 de junio.

Como consecuencia de las modificaciones efectuadas tanto en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, como en el Reglamento de Inspección de los Tributos se incluye, entre los procedimientos y actuaciones de inspección, el de comprobación limitada.

Siendo el procedimiento de comprobación limitada un procedimiento que puede ser utilizado por la inspección de tributos y de forma concreta por los Agentes Tributarios, procede dar redacción al Artículo Único de la Orden Foral 292/2006, de 6 de junio, respetando en todo caso la vigencia de la citada Orden Foral 10/1992, de 21 de enero.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Inspección de los Tributos y el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Artículo Único. Modificación de la Orden Foral 292/2006, de 6 de junio, por la que se aprueban las actuaciones y procedimientos de los Agentes Tributarios.

Se modifica el artículo Único de la Orden Foral 292/2006, de 6 de junio, por la que se aprueban las actuaciones y procedimientos de los Agentes Tributarios, quedando redactado como sigue:

"Artículo Único. Actuaciones y procedimientos a realizar por los Agentes Tributarios.

Para el desarrollo de sus funciones, los Agentes Tributarios realizarán, dentro del Servicio de Inspección de los tributos, las actuaciones y procedimientos establecidos en los apartados b), d), f) y g) del artículo 4 del Reglamento de Inspección. En el procedimiento de comprobación restringida, no procederá la aplicación del método de estimación indirecta de bases imponibles y cuotas tributarias.

Asimismo realizarán las tareas auxiliares de recopilación y análisis de información en relación con los procedimientos del artículo 139 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, así